

Gaztealdia

Gazteek kontzientziak astindu nahi dituzte

Ardura bizkar gainean sentitzen dute. Belaunaldi zaharragoek galdetzen diete zergatik ez duten euskaraz egiten. Haserretzen dira hori entzunda. Gaztearen patuak etengabeko talka linguistikoan bizitzeak ezin duela izan garbi dute. Bakean bizi nahi dute, baina euren hizkuntzari muzin egin gabe. Gaztealdia ekimenean bederatzi gaztek zortzi egunez euskaraz bizitzeko ahalegina egin dute. Ez dute helburua lortu, euskaraz gehiago aritzeko zirrikitu asko aurkitu dituzte, ordea. Euskal Herriko gazteak euskaraz bizitzera gonbidatu nahi dituzte.

 ONINTZA IRURETA AZKUNE  DANI BLANCO

Mahai-inguruan lau gazte bildu ditugu: Miren Balmaseda Castellano tuterarra, Maialen Arteaga Gonzalez zornotzarra, Andrei Fuchs donibandarra eta Mikel Aiartzaguena Agirrebeitia bilbotarra. Hasteko, Aiartzaguenak Gaztealdia testuinguruan jarri eta euskararen auzia nola ulertzen duten azaldu digu. Ondoren, Gaztealdian parte hartu duten hiru kideei haien bizi-penak kontatzeko eskatu diegu.

Gaztealdian parte hartu duten bederatzi gazteek atzean sarea dute eta ondoko eragileek bultzatuta dute ekimena: Bizkaiko Topa Gaitzen, NUPeko euskara taldea, Iep! Ibaetako Unibertsitateko euskara taldea, Gasteizko EHUKo euskara taldea, Baionako Bernart Etxepare Lizeoko Ikasle Asanbladako euskara taldea, eta Galdakaoko Bagabiz euskara elkarteak.

Aiartzaguenak egin digun gogoetan, gazteon helburua bi mezutan bildu du: gazteek euskararen auziaz beretik hitz egin behar dute, eta xedea da gazteek euskaraz bizitzeko hautua egitea, beste

modu batez esanda, erabileran jarri dute azpimarra.

Euskaraz bizitzeko hautu horretan bi gako seinatu ditugu bilbotarrak. Batek, gazteok erabaki dute euskaraz bizitzea, horretarako jauzia ematen ari dira, baina paradoxa batekin aurkitu dira. Aurreko belaunaldiak transmititu diete gazte, herri eta komunitate bezala euskaraz bizitzeko jauzia ematen badute horretarako bitartekoak, aukerak, eskura izango dituztela. Alabaina ez dute hala denik uste: “Astebeteko ariketan, ikaragarriko konbentzimentuz arituta, hedabideen oihartzuna dugula, gizarteak babesten gaituela, partaideek adierazi dute nolako estres linguistikoa pairatu duten. Hau gertatu bazaigun gure mundu txiki euskaldunean eta hiperkonbentzitudun, nola arraio helduko dio euskal gizarteak euskaraz bizitzeko hautu kolektiboari era natural, aske eta

desideologizatuan?”. Baldin eta euskara egunen batean ez-politikoa izango bada, orain afera politizatu behar dela defendatzen dute. Askotan entzun dituzte hizkuntza erakargarriaren, talkak saihestu beharraren, euskara ez politizatzearen aldeko diskurtsoak. Ez daude

ados. Nerabegarotik helduarorako sozializazio ibilbidean eremu nagusiak zein hizkuntzatan

garatzen dituzten aztertuta dute: ikasketak, aisialdia (batik bat kirola), sare sozialak, internet, telebistaren eskaintza, osasun arreta, unibertsitatea eta lan mundua. Aiartzaguenak ikasketak baino ez dituzte jo euskarazko eremutzat, gazte askok D ereduan ikasten dutelako.

Bigarren gakoa euskara herri proiektu bati lotzea da. Bi galdera bota ditugu solaskideak: Zergatik ikasi behar du norbaitek euskaraz? Dakienak zergatik egin behar du? Hainbat sektoretan

“

Kontua ez da Euskaraldiaren aldeko apustua egitea, euskaraz bizitzaren aldeko apustua egitea baizik”

Mikel Aiartzaguena



Goitik behera,
Miren Balmaseda Castellano,
Maialen Arteaga Gonzalez eta
Mikel Aiartzaguena Agirrebeitia.
Andrei Fuchsek telematikoki hartu
zuen parte. Aiartzaguenak ez beste
hirurek hartu dute parte Gaztealdian.

erantzuna erraz dutela dio: euskalduna naizelako eta nire hizkuntza delako. Argudio horrek guztientzat ez duela balioko argi du Aiartzaguenak. Gazte hauek herri proiektu integralagoa irudikatzen dute, non bigarren mailako herritarrik ez den egongo. Alegia, non inor ez den sentituko zapaldua bere herrian bere hizkuntzan bizi nahi duelako: “Euskara da orain daukagun erremintarik onena horra iristeko. Izan ere, gure herrian euskara lehen mailako herritarren hizkuntza izateak ez du hizkuntza baten, nazio baten edo komunitate baten desagertzea ekarriko. Euskara gaztelaniaren aurretik jartzeak ez du ekarriko gaztelaniaren galera. Frantsesarekin gauza bera. Alderantziz eginez gero euskara galduko da”.

EUSKARALDI BEZPERAN ETA ANTZEKO IZENAREKIN, ZERGATIK?

Gaztealdia azaroaren 12tik 19ra egin da, Euskaraldia hasi aurretiko eta ekimenaren izenak Euskaraldia dakargu gogora. Asmo bat nabari da eta horretaz galdetu diegu solaskideei. Euskalgintzak erakundeekin bat egin du ekimena garatzeko, eta gazte horien ustez, horrek Euskaraldiari itxura serioa, aseptikoa eta instituzionala ematen dio. Gazteak hoztu eta gutxiago parte hartzeko beldurra zuten, izan ere erabateko babesa eskaini diote Euskaraldiari gazteok. Beraz, neurri handi batean, Gaztealdia Euskaraldia hastear zela egitea erabaki

zuten gazteak Euskaraldira erakartzeko.

Izan da beste arrazoi bat Euskaraldiari aurre hartzeko. Hamabost eguneko ariketa soziala begi onez ikusten dute, baina eraginkorragotzat zuten mezua sektore bakoitzari egokitzea, kasu honetan gazteei, jakinda Euskal Herriko gazte guztiek ez dituztela ezaugarri berberak. Aiartzaguenak D ereduan ikasi duten milaka gazteak ditu buruan, euskara badakitenak, hizkuntzaz jarrera positiboa dutenak edo behintzat jarrera suntsizailerik ez: “Euskara dakien gazte ez politizatuak *belarriprest* izateko prestutasuna agertuko luke, baina ariketan parte hartzeko deiak kualitatiboagoa izan beharko luke, ez horrenbeste ekimenaren parte hartzekoa, baizik eta euskaraz bizitzeko pausoa ematekoa”. Hau da, *ahobizi* rola jokatu gazteak atzemango lituzke inguruan dituen arnasguneak eta oztopoak, oztopoak arnasgune izateko bidean jartzen saiatuko litzateke, eta arnasguneak saretzen eta hauspotzen lagunduko luke.

Mezua gazteei egokitzea eskatu du solaskideak. Dena den, gogorarazi diegu *belarriprest*-ez gain *ahobizi* rola jokatzeak aukera zegoela. Hala erantzun digu: “Baina aurreko Euskaraldian esan ziguten jende gehiegi izan zela *ahobizi*

eta beraz ariketa ez zela ondo bete. Eta arrazoi puntu bat badauka. *Belarriprest* gutxi egoteak ez du kutsatze efektua sustatzen eta *belarriprest* izan daitekeen komunitatea parte hartu gabe gelditzen da. Ados, baina era berean irakurketa korporatibista egiten du, ‘egin dezagun ariketa ondo, nik jarritako irizpideen arabera’”.

Miren Balmaseda
tuterarrak beti gaztelaniaz
egin izan du euskaraz
badakien ahizparekin.
Gaztealdian euskaraz hasi
dira eta helburua hala
jarraitzea da.

Aiartzaguenak hari berari segika kuadrillako adibidea jarri du. Eman dezagun bilbotarraren kuadrillan berak eta beste batek aukeratu dutela *ahobizi* rola, eta gure solaskideak beste sei kideei mezuren bat eman nahi diela rola aukeratzear. Seiak *belarriprest*

izan daitezke, euskararen alde daude. Rol hori betetzen badute ariketa ehuneko ehun ondo egingo dute. Aldiz, sei horiek *ahobizi* rola hartuko balute egunean hogeitaz hanka sartuko lukete, gaztelaniaz hizketan hasiko liratekeelako. Aiartzaguenak biderketa egin du: 20 hanka-sartze x 6 gazte x 15 egun = 1.800 aldiz txarto egin den ariketa. Emaitzak emaitza, uste du positiboagoa dela jende horrek *ahobizi*-aren aldeko apustua egitea: “Ez da Euskaraldiaren aldeko apustua, euskaraz bizitzearen aldeko apustua baizik”.

GAZTEALDIA TUTERAN, ZORNOTZAN ETA DONIBANE LOHIZUNEN

Bizipen oso desberdinak izan dituzte hiru gazteak, ez alferrik inguru soziolinguistiko desberdinetan bizi dira, baita administrazio banaren pean ere. Erriberara joko dugu lehendabizi eta Tuterako Miren Balmasedari entzungo diegu. Pozik dago zortzi eguneko ekimena bukatuta. Pozik bai, baina aitor du oso zaila izan dela ariketa betetzea: “Nahi eta ezinean sentitu naiz askotan, Tuteran eremu oso erdalduna da”. Dena den, tuterarra konturatu da hizkuntza ohiturak aldatuta, badirela euskaraz aritzeko espazio batzuk eta horiei eutsi behar zaiela uste du. Herria ezagutzen duenez, bazekien zer aurkituko zuen toki bakoitzean, “hemen ezingo dut, hemen ere ez, hemen ere ez”, baina oraingo beritasuna zen euskaraz egin behar zuela bai ala bai. Eta sorpresa onak izan ditu, ez du errefusarik jaso, espero baitzuen “*no te entiendo*” bat baino gehiago entzutea. Umetatik halakoak aditzera ohi-



Gaztealdian ez dituzte bereziki hizkuntza talkak eta ezintasunak agerian utzi nahi izan. Ekimenaren asmoa ez zen gazteak atsekabetzea, euskaraz bizitzeko hautua egiteko adoretzea baizik.



tuta dago Balmaseda. Egoera deserosoenak berak euskaraz eta besteak erdaraz erantzutea, eta besteak ezer ulertzen ez zuelako berak erdarara jauzi egin behar izatea izan dira. Baina kontu ditzagun gogoan dituen oso hurbileko bi sorpresa on. Batetik, euskaldunak eta erdaldunak dauden kuadrillan, gehienetan erdaraz hitz egiten dute, eta jakinda ariketa egiten ari zela, ahal dutenek euskaraz egin diote eta ez dakitenekin erdarazko hizketaldian euskarazko hitzak eta esaldiak erabili ditu. Babesa jaso du, bai kuadrillan, baita orokorrean ere. Bestetik, beti gaztelaniaz egin izan du euskaraz badakien ahizparekin. Gaztealdian euskaraz hizketan hasi dira eta helburua hala jarraitzea da.

Bistan da gaztelaniaz ere egin duela tuterarrak eta galdetu diegu ea ingurukoiegi egiten ari zen azaldu dien: “Musika eskolako irakasleak ez daki euskaraz eta ‘Buenas!’ esatetik ‘Kaixo, zer moduz?’ esatera igaro nintzen. Irakasleak hori ere ez du ulertzen. Ariketa azaldu nion. Lagun erdaldunei ere kontatu diet zertan ari nintzen”. Elkarriketa elebidunak mantentzen saiatu da, baina parekoek ulertzen ez badute komunikazioa ezinezkoa dela dio: “Gauza bat da kafe bat edo liburu bat eskatzeari, baina elkarriketa luzeagoetan ezin da. Dena dela, egoera horiek balio behar digute hausnarketarako: beti gu gara hizkuntza aldatzen dugunak, euskara beti da bigarren mailako hizkuntza”.

Maialen Arteagaren esperientzia bestelakoa da. Inguru oso euskalduna du etxean, kuadrillan, lanean eta herrian ere bai. Uste zuen euskaraz bizi zela eta

Zornotzan euskaraz bizi daitekeela. Ariketak erakutsi dio beti ez dela hala. Lau adibide eman ditu: ez zeukan bi hizkuntzetan egindako elkarriketen kontzientziarik, bera euskaraz eta bestea gaztelaniaz, Arteagari ulertu ere egiten ez diola; ez zegoen ohituta buruan izatera etengabe euskaraz egin behar zuela eta konturatu da egun oso batez ere euskara hutsean aritzeko modurik ez zuela izan; jabetu da kuadrillan bi hizkuntzetan jauzika ibiltzen direla; eta orain badaki haserretzen denean edo txantxetan dabilenean gaztelaniara jotzen duela. Gogoeta egiteko balio izan dio ariketak: “Euskaraz bizi nintzela uste nuen, baina ez da horrela. Ariketara arte eroso bizi nintzen B aukera nuelako, alegia, gaztelaniaz egitea. Hori ez egiteko hautua egin dudanean talkak sortu dira”.

Talkak aipatu ditu zornotzarrak. Dena den, argitu du ariketaren helburua ez zela argazki ilun bat erakustea. Jarrera eraikitzailearen bidez indarra non jarri behar den gogoeta egitea nahi dute, hizkuntza erabileraren inguruan jarrera aldaketak bultzatu nahi dituzte, txipa aldarazi eta kutsatu: “Gutako bakoitzak halako jarrera hartuko balu eta bere lagunaren artean eragin, zenbat gauza aldatuko lirateke?”.

Andrei Fuchs donibandarra biziki pozik da ariketa egin duelako. Hastapenetan zaila egin zitzaion euskara hutsean aritzea, bazekien Baionan eta Donibane Lohizunen ibilita euskaraz aritzea zaila

izango zela. Gauza batez konturatu da: leku bazterragoetan edo minoritarioa den jendeak bazuela interesa eta haiekin gehiago egin duela euskaraz. Fuchsek ez dio zortzi egunetan inori azalpenik eman egiten ari zenaz, nahiz eta, adibidez, egunero sartu den okindegi berean

ogia erostera: “Ez nuen hori egin nahi, bestela jendeak epaituko ninduen horren harira. Irudi

luke erran nahi niola ‘egin niri euskaraz!’. Ez, etorriko naiz ogia erostera egunero goxoki. Kuriositatea piztu nahi nuen. Euskara ez zekitelarik egin nuen leku batzuetan frantsesez, baina beste batzuetan ez.

Erakusten nuen frantsesez banekiela, ulertzen nuela, baina

berak ikusiko zuen nik hala ere euskaraz egiten nuela. Beraz, badakit frantsesa, baina ez daukat zertan egin hizkuntza horretan”. Jakina, euskaldunak aurkitu ditu, baita euskaraz ez dakielako lankide euskaldunari deitu dionik ere. Mutur ilunak ere ikusi ditu, euskaraz ez zekitenen aldetik; kasik beti aitzakia eman diote: “badut lana”. Ingurukoaren artean izan ditu lorpenak. Frantsesezko hizketaldiak euskarara ekartzea lortu du. Ikusi dutelarik Fuchsek bereari eusten ziola, naturalki euskarara jo dute eta ohitura hartu dute. Uste du ohitura hori mantenduko dela.

Gaztealdiak gogoeta egiteko osagai asko azaleratu dituela uste dute lau solaskideek. Buruari eragiteaz gain, hurrengo ekimen praktikoen berri ematerik baduten galdetu diegu eta irribarre egin digute erdi ihesean. Aiartzaguenak praktikatik diskurtsora egin du jauzi di-da batean: “Argi daukagu, euskaraz bizi nahi dugu eta hala biziitzeko baliabideak sortu nahi ditugu”. ●

“
Ariketaren helburua ez da izan argazki ilun bat erakustea, bai ordea indarra non jarri behar den gogoeta egitea”
Maialen Arteaga

“
Erakusten nuen frantsesez banekiela. Beraz, badakit frantsesa, baina ez daukat zertan egin hizkuntza horretan”
Andrei Fuchs